

<b>ZEZEN IKUSKIZUNEN FORU DEKRETURAKO PROIEKTUA</b>	
Tramitea:	ARAUA PRESTATU AURREKO KONTSULTAK (Nafarroako zezen ikuskizunak arautzen dituen Foru Dekretuaren proiektua)
Bitartekoa:	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA
Araua:	39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nagusienek puntu hauei buruz:

- A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- B) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Agiri honen helburua da puntu horiei erantzutea eta Zezen ikuskizunak arautzen dituen Foru Dekreturako proiektua prestatu aurreko kontsultaren oinarria izatea, arauaren balizko hartzaileek eta oro har herritar guztiek parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

#### **A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.**

Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legeak esparru orokorra ezartzen du Administrazioak ikuskizun eta jarduera horien gainean izan beharreko kontrolerako. Lege horrek zioen azalpenean adierazten duenez, kontrola ez da egin behar jarduera horien berezko edukiaren eta xedearen –gizarte dinamikak berak bultzatu behar dituenen– gainean, baizik eta, gure ordenamendu juridikoan onartuta dauden oinarrizko eskubideetan eragiten dutenez, esku-hartze publikoa eskatzen duten beste batzuen gainean. Esku-hartze honen helburu nagusia izan behar da bizitzarako eta osotasun fisikorako eskubideak eta pertsonen segurtasunerako eskubidea bermatzea, segurtasun hori arriskuan jar baitaiteke aipatu jardueretan eta, bereziki, zezen ikuskizunetan.

Ilido beretik, Tauromakia kultur ondare gisa arautzeko azaroaren 12ko 18/2013 Legeak hau adierazten du Hitzaurrean: *"Zezen-jaialdiak eta zezen-ikuskizun herrikoiak biziak eta dinamikoak dira, bilakaera etengabea daude, eta ezin da aurreikusi nola egokituko diren gure garaien eta datozen garaien sentsibilitate aldakorretara. Herritarren artean zaletasunari eustea eta belaunaldi berrietan ere zaletasun hori berritzeko gai izatea izanen dira gakoak; izan ere, hala badagokio, belaunaldi berriak dira zezen-jaialdiei eutsi eta jaialdiok eguneratu eta gorde beharko dituztenak. Dena dela, gizartearen aukeratzeko askatasunean eta kulturak berak dakarren askatasunean oinarrituta egin beharko da hori, kulturara iristeko eskubidea mugatu gabe".*

Arau horrek azaltzen duen legez, sormen artistikoaren askatasunak berarekin dakar artea zentsurarik, kontrolik edo alde aurreko jarduketarik gabe sortzeko eta zabaltzeko ahalmena, salbu eta ezinbestekoak direnean, artea ikuskizunaren bidez zabaltzean sor litezkeen arriskuak deuseztatzeko edo ahalik eta gehien kentzeko.

Bi xedapenak bat datoz: Administrazioaren kontrola ez da egin behar ikuskizunaren edukiaren edo ikuskizuna garatzeko eraren gainean, alderdi horiek, betiere, zaletuen ustearen, sentsibilitatearen eta babesaren mendean baitaude; aitzitik, kontrol hori bideratu behar da nagusiki lehen aipatutako eskubide oinarritzakoak babestera, ikuskizun hauek arrisku berezikoak baitira.

Azkenik, Zerbitzu Jardueretan Libreki Hasi eta Aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legeak eta Merkatu Batasunaren Bermeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legeak, hurrenez hurren, printzipio batzuk ezartzen dituzte, jarduera horietan aritzeari buruzko erregulazioa hobetzeko eta jarduera horiei lotutako jarduera ekonomikoetan sartzeari xedatzeko, alde batetik, arrazoirik gabeko edo neurritz kanpoko oztopoak murriztuz eta, beste alde batetik, operadore ekonomikoak eta ondasun zein zerbitzuak Espainiako lurralde osoan libre ibiltzea eta ezartzea bultzatuz, eragile ekonomikoen aldekoagoa den ingurunea ekartzen dutela biek.

Ikuspuntu hauetatik aztertuta, Zezen ikuskizunen egungo Erregelamenduak –ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretuaren bidez onetsiak– honako desegokitasun hauek ditu, ekimen honen bidez zuzendu nahi direnak:

- Haren artikulua askok xeheki deskribatzen dute ikuskizunak nola egiten diren, haien edukian berean zuzenean eragiten duten alderdiak arautu eta kontrolatuz (aurkezpen paseoa, aholkulari artistikoak, lehendakaritza, zozketa, zezen banaketa, zigor banderillak, turuta hotsak, zapiak, sariak, indultua etab.), baina alderdi horiek lotuago daude tauromakiaren "liturgiarekin" lehen aipatutako helburuak lortzearekin baino.
- Zenbait beharkizun ditu, hala nola, kuadrillen osaera, zezenketaren zuzendaritza, jarduteko hurrenkera, profesionalen arteko ordezkapena etab.; orobat, baimentzeko prozedurari buruzko beste beharkizun batzuk, aipatu diren azaroaren 23ko 17/2009 Legearen eta abenduaren 9ko 20/2013 Legearen printzipio batzuk urratzen dituztenak.

- Osasun zerbitzuen arauketak berrikuspen sakona behar du, erizaintzen, profesionalen eta osasun garraioaren alorretan egun dauden beharkizunetara egokitzeko.
- Zezen ikuskizun herrikoiak egiteari dagokionez, alderdi garrantzitsu batzuek ez dute gaur arte arau-garapen egokirik izan; alderdi horiek lotuta daude ibilbideen eta prestatzen diren espazioen segurtasunarekin, parte hartzen duten abere motekin, esku hartzeko baldintzekin eta ikuskizun horiek gauzatzeko ezinbestekoak diren prebentzioko eta ebakuazioko neurri eta gailu funtsezkoekin.

### ***B) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.***

Hainbat alderdik agerian uzten duenez, beste xedapen bat onetsi beharra dago, alor honi buruzko araudia bategiteko, eguneratzeko eta koherente bihurtzeko, eta arauetako eta merkatuko egungo eskakizunen arabera planteatzen diren galderei erantzuteko.

- Ikuspuntu instrumentaletik begiratuta, ekimen hau onestea aukera egokia da testu bakar eta koherentea izateko, egun sakabanatuta dauden xedapenak bere baitan hartuko baititu.
- Egungo errealitatearekin hobeki lotzen den araudia eman behar zaie zezen ikuskizunei. Araudi horrek ikuskizuna nola egiten den deskribatzen duten alderdi formalak gaindituko ditu, Administrazioaren eraginkortasunaren, efizientziaren, sinplifikazioaren eta prozedura ekonomiaren printzipioekin bat etorriko da eta haren norabide nagusia izanen da parte hartzaileen eta ukituriko hirugarrenen eskubide oinarritzkoak babestea, kontsumitzaileak defenditzea eta animalien ongizatea zaintzea.
- Zezen ikuskizun herrikoietan azken urteotan izan diren gertakariak –zoritxarrez zenbait pertsona hil baitira– erakusten dute ikuskizun hauek zehazkiago arautzea komeni dela. Araudi horrek aintzat hartuko ditu, bereziki, ikuskizun horiek egiteko prestatutako espazioen eta ibilbideen ezaugarriak, parte hartzen duten abelburuen berezko izaera, parte hartzaileen baldintzak eta jokaerak, eta prebentzioko gailuak.
- Orobat, ezinbestekoa da ikuskizun hauetarako aurreikusita dagoen osasun arretako sistema berrikustea, egungo eredu operatiboetara egokitzea lortzearen.

### ***C) Arauaren helburuak.***

- Arau honen lehen xedea da zezen ikuskizunek dakarten **arriskua ahalik eta gehien murriztea**. Osotasun fisikoa babestea haietan kaltetuak gerta daitezkeen pertsona

guztiei: a) esku-hartzaileak, b) ikusleak eta c) gorputzean edo ondasunetan kalteak jasan ditzaketen hirugarren pertsonak, aurrekoekin zerikusirik ez dutenak. Horren ondorioz, araudiak honako alderdi hauek jorratu behar ditu:

- Instalazioen eta barrutien segurtasuna.
- Ikusleak zer baldintzatan egonen diren.
- Ikuskizun herrikoietan parte hartzeko baldintzak.
- Zezenketako eta heriotzako ikuskizunetan parte hartzen dutenen profesionaltasuna.
- Abereen ezaugarriak.
- Osasun baliabideak.

Zezen ikuskizun herrikoien kasuan, araudi orokor hau osatu behar da ikuskizunaren segurtasun plan berariazkoa prestatu eta onetsita. Plan horrek aintzat hartuko ditu ikuskizunaren bereizgarriak.

■ Bigarrenik, arauak jaso beharko ditu **animalien osasuna eta ongizatea** zaintzeko neurriak. Zezen ikuskizun herrikoiak arrisku handikotzat jotzen dira, animaliek pairatzen duten estresarengatik eta behar bezalako garbitasunik eta desinfekzioz ez duten instalazioetatik pasatzeagatik, bertatik beste abelgorri batzuk igarotzen baitira, haietako batzuk osasun kalifikaziorik gabe. Horregatik, saihestezina da ikuskizun hauetan parte hartzen duten abeltzaintzako ustategien saneamendua bermatzen eta kontrolatzen uzten duten baldintzak arautzea.

■ Hirugarren helburu nagusia da ikuskizun hauetara **ikusle gisa joaten diren pertsonen eskubide berariazkoak** egoki arautzea, honako hauek kontuan izanda:

- Ikuskizuna enpresak iragarritako eran eta baldintzetan osorik gauzatzeko eskubidea.
- Ordaindutako dirua itzultzeko eskubidea, ikuskizuna funtsean aldatu bada edo bertan behera utziz gero.
- Beste edozein erabiltzaile onartzen den bezalako baldintza objektiboetan onartua izateko eskubidea, enpresak sarrera ukatzeko eskubidea erabiltzeko dituen mugen barruan, betiere, edukierak hori ahalbidetzen bada eta ez badago tartean erregelamendu bidez araututako ordena nahasmendu edo segurtasun arrazoiengatik baztertua izateko motiborik.
- Sartzerakoan, onarpenerako baldintzei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Kanpora irteteko bideei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea; bide horiek Autobabeserako edo Segurtasuneko Planean egonen dira zehaztuta, bidezko

bada, edo larrialdien alorreko egungo legedia edo araudia aplikatuz zehaztuko dira, kasua bada.

***D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak.***

Proiektu honetan azaldu diren neurrien izaera eta pisua direla-eta, beharrezkoa da Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen araudi garapena, foru dekretu baten bidez eginga, eta ez da kontuan hartzen beste irtenbiderik, erregulatzaillea izan edo ez-erregulatzaillea izan.

Iruñean, 2017ko martxoaren 1ean  
BARNEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Agustín Gastaminza Oiz